**UDALBATZARRAK 2019KO URRIAREN 10ean OSPATUTAKO EZ-OHIZKO BILKURAREN AKTA**

2019ko urriaren 10ean, Larraulgo Udaletxean, arratsaldeko 16.00etan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Maite Arana Perez

ZINEGOTZIAK :

Aitor Beistegui Fiallegas
Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

Bere ezin etorria azaltzen du: Maialen Alonso Labandibar

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **2020 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2020.**

…/…

***LEHENENGO PUNTUA***

**2020 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2020. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeko unea dela.

Ikusirik 2019 urteko irailaren 19an Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimentua, batetik, eta bestetik, 2019ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- 2020 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

## 1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK**:

- Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,3.
- Gainerako hiri ondasun higiezinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,23.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,6.

**Tipoak mantentzea proposatzen da.**

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK**

| | |
|---|---|
| - Famili Ugariak (3 ume edo gehiago) | % 50. |
| - Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak | %25. |

**Hobari hauek mantentzea proposatzen da.**

## 2. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

**Koefizientea gehienez 2,2 arte igo daiteke. Topean dago, beraz ezin liteke igo.**

**Tipoa mantentzea proposatzen da.**

Ez dago hobaririk onartuta.

## 3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK**

- Ibilgailu historikoak % 50.

**Hobari hau mantentzea proposatzen da.**

**Ondorengo hobariak onesten dira:**

- Zerga-kuotaren %75eko hobaria, ibilgailuen motorraren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera.

-Hobari hau %95ekoa izango da, motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan.

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK.**

Gaur egun **% 1,73** koefizientea aplikatzen da, tarifak mantentzea proposatzen delarik .

| Ibilgailu mota eta potentzia | Euroak | Koefizientea |
|---|---|---|
| A)**Turismoak:** | | |
| 9 zaldi fiskal bitartekoak | 31,81 | %1,73 |
| 9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak | 63,63 | %1,73 |
| 12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak | 106,05 | %1,73 |
| 14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak | 148,47 | %1,73 |
| 16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak | 190,89 | %1,73 |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak | 233,31 | %1,73 |
| B) **Autobusak:** | | %1,73 |
| 21 plaza bitartekoak | 144,11 | %1,73 |

| | | |
|---|---|---|
| 21 - 50 plaza bitartekoak | 205,25 | %1,73 |
| 50 plazatik gorakoak | 256,56 | %1,73 |
| C)**Kamioiak:** | | %1,73 |
| 1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria | 73,14 | %1,73 |
| 1.000 - 2.999 kg. bitarteko | 144,11 | %1,73 |
| 2.999 - 9.999 kg. Bitarteko | 205,25 | %1,73 |
| 9.999 kg-tik gorako | 256,56 | %1,73 |
| D)**Traktoreak:** | | %1,73 |
| 16 zaldi fiskal bitartekoak | 30,57 | %1,73 |
| 16 – 25 zaldi f. bitartekoak | 48,04 | %1,73 |
| 25 zaldi fiskaletik gorakoak | 144,11 | %1,73 |
| E)**Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak**: | | %1,73 |
| 750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria | 30,57 | %1,73 |
| 1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e. | 48,04 | %1,73 |
| 2.999 kg.tik gorako karga e | 144,11 | %1,73 |
| F)**Gainerako ibilgailuak:** | | %1,73 |
| Ziklomotoreak | 7,80 | %1,73 |
| Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak | 7,80 | %1,73 |
| Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek | 13,36 | %1,73 |
| Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek | 26,73 | %1,73 |
| Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek | 53,46 | %1,73 |
| Motozikletak 1.000 cctik gora | 106,90 | %1,73 |

## 4.ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

**Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:**

% 50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

- Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK**

-Baserrien berrikuntza: titularrak nekazaritza ustialekuen erroldatze agiria badu % 2,50
-Besteak:

a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak: %4,50.
b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua: %5,00.

**Tipoak mantentzea proposatzen da.**

## 5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

**2019 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:**

Portzentaiak:

a) 1 urte 5 urtera bitarteko %3,6
b) 10 urte artekoa %3,4
c) 15 urte artekoa %3,1
d) 20 urte artekoa %2,9

Karga Tasa: % 6,30 da eta ezin du % 10ª gainditu

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

**Karga Tasa mantentzea proposatzen da.**

## 2. TASAK

## 1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

**PROPOSAMENA**

### 1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

| **Ur horniketa: Ur kontsumoa** | **Euroak** |
|---|---|
| | |
| **1.1.1.Etxez-etxeko ur hornidura** | |
| 30m3.bitartekoa, hiru hilabetea | 18,00€ |
| 31m3tik goragokoa, hiru hilabetean | 0,74€/m3 bakoitza |
| | |
| **1.2. Azpiegitura kanona:** Guztientzat, hiruhilabeteko | 12,00€ |
| | |
| **1.3.Udal azpiegituren mantentzea** Guztientzat, hiruhilabeteko | 10,00 € |
| | |
| **1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko** | 120,00€ |
| | |
| **1.5.- Hobariak:** Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina. | |

## 1.2. ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

**PROPOSAMENA:**

| ZABORRAK | Euroak |
|---|---|
| | |
| **1.Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko** | 34€ |
| | |
| **2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko** | 48€ |
| | |
| **3. Etxez-etxeko bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko** | 86€ |
| | |
| **4. Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostaia egiten ez dutenak,hiruhileko** | 120€ |
| | |
| 5. **Hobariak:**<br>Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina | |

## 1.3. HIRIGINTZ BAIMENAK ETA HIRIGINTZ DOKUMENTUAK IZAPIDATZEAGATIK

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

| **DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA** | Euroak |
|---|---|
| | |
| **1.Hirigintza kontsulta** | 80€ |
| | |
| **2. Segregazio baimena** | 80€ |
| | |
| **3. Lehen erabilera baimena** | 105€/etxeko |
| | |
| **4. Edozein P.E.R.I. , Zati Plana, Urbanizazio proiektu, konpentsazio proiektu** | 1.600€ |
| | |
| **5. 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea** | 30€ |
| | |
| **6. 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea** | 50€ |
| | |
| **7. Jarduera baimenak:**<br>- Klasifikatutako jarduera:<br>-Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa:. | <br>110,00 €<br>80,00 € |
| | |
| **8. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.** | |

**Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.**

## 1.4.-HILETA ZERBITZUA

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

| **HILETA ZERBITZUA** | **Euroak** |
|---|---|
| | |
| **1.Hezurtegiaren emakida:**<br>**Behin-betiko emakida, plaka barne** | 195€ |
| | |
| **2. Nitxoen emakida:**<br>**-15 urteko epean, plaka (familiak erosi beharko du)eta apala**<br>**-5 urte bitarteko luzapenagatik** | 180€<br><br>125€ |
| | |
| **3. Lurperatze tasa nitxoan** | 48 |

**Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.**

## 1.5. KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA:

| **KIROL INSTALAZIOAK** | **Euroak** |
|---|---|
| | |
| **1.Kirol instalakuntzen erabilera** | 3€/orduko |

**Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.**

## 1.6. MAPEN SALMENTA:

| **MAPAK** | **Euroak** |
|---|---|
| | |
| **1. Mapa Handiak** | 3€ |
| | |
| **2. Mapa txikiak** | 1€ |

**Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.**

## 1.7.HAURREK ETA GAZTEAK SUSTATZEKO SAILAREN ZERBITZU-EMAKIDA ETA JARDURA GAUZATZEA:

| JARDUERAK | Euroak |
|---|---|
| | |
| **1.Euskal Dantza:**<br>**-Lehenengo haurra**<br>**-2. Eta 3. haurrak** | <br>33€/ hiruhileko<br>21€/ hiruhileko |
| | |
| **2.Esku pilota**<br>**-Lehenengo haurra**<br>**-2. Eta 3. haurrak** | <br>30€/ hiruhileko<br>21€/ hiruhileko |

**Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.**

## 2. UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TADAK

Tasa hauen barnean ondorengo kontzeptuak daude aurreikusiak eta onartuak:

### 2.1. UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

**Tarifa hau mantentzea proposatzen da.**

HIRUGARRENA.- 2020 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

## 2019 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2020 urteko otsailaren 1etik martxoaren 2ra bitartean.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2020 urteko apirilaren 1etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2020 urteko maiatzaren 4tik uztailaren 6 arte.
2020 urteko abuztuaren 3tik urriaren 5 arte.
2020 urteko urriaren 28tik abenduaren 28arte.
2021 urteko otsailaren 2tik apirilaren 2 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari andreak bilkura eguerdiko 14.30 orduetan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

I.Eranskina

**2020 KO UR ETA ZABORREN TASEN HOBARIEN TAULA/TABLA PARA EL EJERCICIO 2020 DE BONIFICACION DE TASAS DE AGUAS Y BASURAS**

Behartsuenei hobariak ematerakoan, bi ezaugarri hartzen ditugu kontuan/ A la hora de dar ayudas a los necesitados se tienen en cuenta dos conceptos:

1. Familiaren kide kopurua, hots, etxean bizi diren pertsona kopurua ( ezkerreko zutabea)/Número de miembros de la unidad familiar ( tabla de la izquierda)
2. Familia osatzen duten kide guztien hileko dirusarrerak, indarrean dagoen Lanbidearteko gutxieneko soldata, oinarri hartzen delarik.
   Ingresos económicos mensuales de todos los miembros de la Unidad Familiar, tomando como base, el Salario Mínimo interprofesional vigente.

**L.G.S / S.M.I Urtero finkatzen du Madrilgo Gobernuak**

| Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz. **Nivel de sueldo, Comparando con el SALARIO MINIMO INTERPROFESIONAL** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **LGS edo <<br>SMI .o <** | **LGS + % 10<br>SMI.+% 10** | **LGS +% 20<br>SMI + % 20** | **LGS +% 30<br>SMI + % 30** | **LGS +% 40<br>SMI + % 40** | **LGS + % 50<br>SMI + % 50** | **LGS + % 60<br>SMI + % 60** |
| 1-2 | %100 | %75 | %50 | %25 | ------ | ------- | ------- |
| 3 | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 | --------- | -------- |
| 4 | %100 | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 | --------- |
| 5 | %100 | %100 | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 |
| 6 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %75 | %50 |
| 7 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %75 |
| 8 edo + | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 |

- D.B.E EDO G.L.L KOBRATU ETA KRITERIO HAUEN BARRUAN EZ DIREN KASUAK BANAKA AZTERTUKO DIRA/- Si cobra R.G.I. O AES, los no contemplados dentro de estas categorías se estudiarán caso por caso.
- KONTSUMO MIN = $60M^{3\ (semestral)}$/ CONSUMO MINIMO $60M^{3(}$ seis meses)

**ONDASUN BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN PERTSONEK EZ DUTE HOBARIRIK JASOKO/LAS PERSONAS PROPIETARIAS DE MAS DE UN BIEN NO COBRARÁN ESTAS AYUDAS.**

**L.G.S. :Lanbidearteko gutxieneko soldata; S.M.I.: Salario minimo interprofesional.**
**D.B.E.: Dirusarrerak bermatzeko errenta; R.G.I.: Renta de garantia de ingresos**
**G.L.L.: Gizarte larriunetarako laguntzaK; A.E.S.: Ayudas de emergencia social.**

San Esteban Plaza, z/g. 20159 LARRAUL. Tel.: 943 69 30 42 – Fax: 943 69 36 23
web orria: www.larraul.eus. E-maila: udala@larraul.eus

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)